



Esp. kodea: 2024FIZE0001
Titularra: MONDRAGON GOI ESKOLA
POLITEKNIKOIA

Gaia: 2024ko dirulaguntza eskaera, Nazioarteko
Campusa egitasmoa finantzatzeko

Hitzarmena

Arrasateko Udala eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren arteko hitzarmena

Alde batetik, Maider Morras Azpiazu, NA 15398277F duena, adinez nagusia, Arrasateko Udalaren alkate-udalburua, beronen izenean eta ordezkari gisa, horretarako behar bezala ahaldundua dago eta.

Eta bestetik, Carlos Garcia Crespo, NA 30627545D duena, adinez nagusia, Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren zuzendari-gerentea, erakunde horren izenean jarduteko behar bezala ahaldundua baitago.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri.

Aurrekariak:

Azken ikasturteetan, Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren ikasleen mugikortasuna nabarmen areagotu da kanpora joan nahi duten ikasleen kasuan, Outgoing programaren bidez eta beraien ikasketen zati bat edo osorik gurean burutu nahi duten ikasle atzerritarrak Incoming programaren bidez.

Nazioarteko harremanen arloan 2023-2024 ikasturtean burutu den jarduerak bost esparru nagusi jorratu ditu :

- MGEP_MUko ikasleek euren prestakuntza aldi nazioarteko esperientzia izan dezaten sustatzea.
- Atzerriko ikasleak MGEP_MUra etortzeko joera areagotzea.
- Atzerriko unibertsitateetako lankidetzak hitzarmenak berritzea eta bultzatzea.
- Euskal enpresen nazioartekotze-prozesua laguntzea.
- Europako proiektuak koordinatzea eta horietan parte hartzea.

Ikasleen mugikortasuna sustatzen duen egitasmo honek ikasleen ikasketak atzerrian garatzea dakar, eta hezkuntzaren berrikuntzan eragin zuzena du.

Klausulak:

1.-Arrasateko Udalak, gehienez, 2.500 €-ko ekarpena egingo dio Mondragon Goi Eskola Politeknikoari nazioarteko campusaren proiektuaren finantzazioan laguntzeko.

2.-Goi Eskola politeknikoak konpromisoa hartzen du kanpusaren proiektua aurrera eramateko, eta emaitzen inguruko txostena aurkeztuko dio Udalari.

3. Hitzarmen hau sinatu eta berehala jasoko du dirulaguntzaren %60; gainerakoa, dirulaguntza ziritutakoan.

4. Aurtengo ekintzen azalpen-memoria aurkeztuko du Mondragon Goieskola Politeknikoak datorren 2025eko urtarrilaren 15a baino lehen, dirulaguntza xede duten ekintzena; eta, horrekin batera, 2023-2024an izandako gastu eta sarreraren balantzea, diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia dutenak, eta gastuen jatorrizko agiriak (fakturak).

Kodea	BD24/03725	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA11HW7.L.iy1X		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA11HW7L.iy1X		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			





Esp. kodea: 2024FIZE0001
Titularra: MONDRAGON GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA

Gaia: 2024ko dirulaguntza eskaera, Nazioarteko
Campusa egitasmoa finantzatzeko

Eta hala jasota geratzeko, hitzarmena sinatzen dute alde biek gaurko egunez.

Arrasateko Udalaren alkate-udalburua

MGEpko legezko ordezkaria

Kodea	BD24/03725	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA11HW7.L.iy1X			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA11HW7L.iy1X			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				